



Franky neskato handi bat da,
oso handia, erraldoia!

Bere aitak eginiko jostailu pila bat ditu,
baina berak... bere adineko umeeekin
jolastu nahi du!

Franky eskolara joango da,
lortuko ote du lagunak egitea?



Bilduma berean:
Momia gosetia
Banpiro arrizkutsua
Kulero zulatuen mamua

ISBN: 979-13-87834-55-5 www.nubeocho.com



FRANKY FRANKENSTEIN

José Carlos Andrés Gómez



FRANKY FRANKENSTEIN



JOSÉ CARLOS ANDRÉS
GÓMEZ

Ari eta Leori, Leo eta Ariri. APARTAK direlako.

José Carlos Andrés



Franky Frankenstein

Somos8 bilduma

© testuarena: José Carlos Andrés, 2025

© irudiena: Gómez, 2025

© argitalpenarena: NubeOcho, 2025

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Franky Frankenstein*

Lehen argitaraldia: Urria, 2025

ISBN: 979-13-87834-55-5


Legezko Gordailua: M-15582-2025

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.

FRANKY FRANKENSTEIN

José Carlos Andrés
Gómez



Franky Frankenstein **HANDI** samarra zen.

Egiari zor, nahikoa **HANDIA** zen.

OSO HANDIA!



Franky Frankensteinek jolaserako lagun

OSO BEREZIAK zituen:

Piraina mokofina, Hozkagure sugea,
hainbat Mukizuti eta...



Aitatxo Frankensteinek eginiko **JOSTAILU ANDANA!**

Kalabaza mintzaerraza, erratz pixontziak, sorgin kakatiak...



Franky Frankensteinek irakasle bat zuen:

UR, BUREZURRA!

Frankyk denetik zuen, baina bazen faltan
sentitzen zuen zerbait...

Zer zen Franky Frankensteinek **FALTAN ZUENA?**



—EUREKA! —oihukatu zuen aitatzko
Frankensteinek—. Franky, munstro lagun
berri bat egin dizut...



—Zergatik aurpegi hori? Ez duzu gustoko?
—Bai aita, gustoko dut, baina nik... Nik...

Nik **BESTE UME BATZUEKIN JOLASTU NAHI DUT!**




—Bihotza, herriko biztanleak ez dira zu bezalakoak...
—Baina niri haiek ezagutzea gustatuko litzaidake!
—Ados, Franky, zuk hala nahi baduzu...

Frankyk gaztelutik irten bezain laster ikusi ahal izan
zuen aitatxo Frankensteinek arrazoi zuela: herrian
denek begi eta aho-zabalik begiratzen zioten.

Gainera **SEKULAKO PRESA** zeramaten!



Frankyk aurrera jarraitu zuen, eta orduan, zera entzun zuen:



—Barkatu, beldurtu egin naiz zu ikustean —esan
zuen neskatila txiki batek—. Eskolatik nator
eta etxerantza nindoan...



—Eskolatik? **ZER DA ESKOLA?** —galdetu
zuen Frakyk, ikusminez.

—Haurrak ikastera joaten garen toki bat da.
Eta jolasean ere ibiltzen gara!

—Hara, itxura ona du horrek! Nik... Nik...

Nik **FRANKY FRANKENSTEIN** dut izena.

